

## **HKEE-REN PRENTSA OHARRA, AIAKO UDALAREN 2020KO FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA**

---

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren Osokoak (aurrerantzean HKEE) joan den apirilaren 7an aho batez onartu zuen Aiako Udalaren ekonomiaren eta finantzaren kudeaketaren gaineko fiskalizazio txostena, 2020ko ekitaldiari buruzkoa.

2020ko ekitaldiko urteko kontuei dagokienez, HKEEk **aldeko iritzia** eman du, baina Epaitegiak ezin izan du zehaztu Aktibo ez-korrontearen saldoek haren benetako egoera islatzen duten.

Fiskalizazio-gai izan diren Kontuen **finantza egoerari** dagokionez, HKEEk adierazi du Zerga itunduen bilketan izandako partaidetzagatiko diru-sarrereren murrizketa puntualak eta zerbitzuen kostuen igoerak aurrezki-maila murriztu dutela.

Aurrekontu-egonkortasunaren, zor publikoaren eta gastu-arauaren helburuei dagokienez, Gipuzkoako Foru Aldundiak 2020ko eta 2021eko ekitaldietarako zerga-arauak etetea erabaki du, eta horrek esan nahi du aipatutako urteetan ez dutela ondoriorik eragingo.

Udalak zuzentasunez **bete du** 2020an bere jarduera ekonomikoa eta finantzarioa arautzen duen **lege-arautegia**, nahiz eta kontratazioan akats puntualak antzeman diren (bi kontratu zuzenean esleitu ziren).